



**Ebazpena, 2020ko abenduaren 1ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko zein itunduei zuzendutako jarraibideak onartzen dituena, IKT heldutasunaren ziurtagiriak eskuratu ahal izateko**

174/2012 Dekretuak, irailaren 11koak, ikastetxeetako teknologia-heldutasunaren eredia (IKT Heldutasuna) onartzen du, eta ikastetxeetako heldutasun-mailak egiaztatzeko ziurtagiriak eta ziguiluak ezartzen ditu. Seigarren artikuluan ezartzen du bi urterik behin, gutxienez, dei egingo zaiela ikastetxe publikoei eta itunpekoiei, mailak egiaztatzeko prozesuetan parte har dezaten.

Era berean, Dekretu honetako eranskinean ezartzen diren baldintzak egiaztatu eta gero emango dela ziurtagiria esaten du. Aipatutako Dekretua, 2017ko urriaren 16ko Agindua bidez, Hezkuntza sailburuordearena, eguneratu egin da (Azaroaren 7ko EHAA)

### **1. Deialdiaren xedea eta hartzaileak**

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta itunpekoiei dei egiten zaie, IKT Heldutasuna ziurtagiriak eskura ditzaten.

Hiru maila daude, eta ikastetxeek hiruretako edozeinen ziurtagiria eska dezakete, aldezturik aurreko maila dutela egiaztatu behar izanik gabe.

### **2. Eskabideak aurkezteko epea eta tokia**

Eskabideak aurkezteko azken eguna 2020ko abenduaren 23a izango da, egun hori barne. Eskabideak tokiko Berritzegunean aurkeztu beharko ditu ikastetxe bakoitzak. Eskaberaren inprimakia, berriz, jarraibide hauen eranskinean azaltzen dena da.

### **3. Hautaketa Batzordea eta prozedura**

Ziurtagiria eskuratzeko eskabideei buruzko txostena egingo du, derrigor, tokiko Berritzeguneko zuzendaritzak eta, gero, eskabide horiek Hautaketa Batzordeari bidaliko dizkio, txostenarekin batera.

Honako hauek izango dira Hautaketa Batzordeko kideak:

- a) Hezkuntza Berritzatzeko zerbitzburua. Bera izango da batzordeburua.
- b) Berritzegune Nagusiko aholkulari bat, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak izendatua.
- c) Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak izendatua. Berak egingo ditu idazkari-lanak.

Hautaketa Batzordeak, tokiko Berritzeguneeen balorazioa eta berak egindako balorazioa kontuan hartuz, ebazpen-proposamena bidaliko dio Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariari.

Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak, Hautaketa Batzordeak egindako proposamenak ikusita, ebazpena emango du, egiaztatu beharreko ikastetxeak eta horietako bakoitzari dagokion egiaztapen-maila zehazteko

Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariaren ebazpena jakinarazteko, Hezkuntza Sailaren web orrian argitaratuko da ebazpen hori, jarraibide hauek argitaratu eta hurrengo egunetik sei hilabeteko epean.

Aipatutako epea pasa ondoren, aurreko paragrafoan ezarritako eran ebazpenik jakinarazi ezean, interesdunek beren eskaera atzera bota dela interpretatu ahal izango dute, urriak 1ko 39/2015 Legearen xedatutakoaren ondorioetarako, lege horrek Administrazioari berariaz ebazteko ezartzen dion betebeharraren kaltetan izan gabe.

Prozedurari bukaera ematen dion ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango diote Hezkuntzako sailburuordeari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

#### **4. Ebazte-prozesua**

Dagokion tokiko Berritzeguneak eta Hautaketa Batzordeak baloratuko dituzte eskaerak, abuztuaren 11ko 174/2012 Dekretuaren eranskinean adierazten diren ebaluazio-tresnak erabiliz, urriaren 16ko Aginduan eguneratua.

Dagokion tokiko Berritzeguneko aholkulariak, bere txostena egiteko, egin beharrekotzat jotzen dituen ekintza guztiak egingo ditu; esate baterako, ikastetxea bisitatu, ikastetxeari informazio edo dokumentazio gehigarria eskatu, etab.

#### **5. Jarraipena eta ebaluazioa**

Tokiko Berritzegunea arduratuko da ziurtagiria lortzeko ikastetxeek behar duten prozesuaren jarraipena egitea eta aholkularitza ematea, baita ikastetxeen ebaluazio-txostena egitea ere.

"Kudeaketa-adierazleetan oinarritutako ebaluazio-sistema" izeneko aplikazioa lagungarri izango da jarraipen- eta koordinazio-lanetarako.


#### **6. Datu pertsonalak.**

Agindu honetan aipatzen diren prozeduretan aurkeztutako eskabideetan eta dokumentazioan agertzen diren datu pertsonalak Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak tratatuko ditu, datuak tratatzeko "arduradun" gisa. Datu pertsonalen tratamendu horren helburua deialdi hau kudeatzea eta ebaztea izango da. Interes publikoan eta parte-hartzeko eskaeran oinarritutako xedea.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuok tratatzeko mugak jarri edo aurka egiteko eskubideak ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpena bidali beharko dute Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta dezan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 1



**Begoña Pedrosa Lobato**

**HEZKUNTZA SAILBURUORDEA**



## ERANSKINA / ANEXO

**IKT Heldutasuna ziurtagiria eskuratzeko eskaera**  
**Solicitud de Certificado de Madurez TIC**

**Eskaeraren datuak / Datos de la solicitud**

Ikastetxea / Centro: \_\_\_\_\_ Kodea / Código: \_\_\_\_\_

Udalerría / Municipio: \_\_\_\_\_ Lurraldea / Territorio: \_\_\_\_\_

Erreferentziako berritzegunea / Berritzegune de referencia: \_\_\_\_\_

Eskuratu nahi den heldutasun-mailaren ziurtagiria / Nivel de certificado de madurez que solicita: \_\_\_\_\_

IKT-dinamizatzailea / Dinamizador/a TIC:

Izen-abizenak / Nombre y apellidos: \_\_\_\_\_

NAN zenbakia / Nº DNI: \_\_\_\_\_

Posta elektronikoa / Correo electrónico: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_  
 jaunak/andreak, goian adierazitako ikastetxeko zuzendariak, bere ikastetxearen IKT Heldutasuna ziurtagiria eskatzen du eta deialdi honetan zehaztutako baldintzak onartzen ditu.

Don/Doña

\_\_\_\_\_,  
 director/a del centro arriba indicado, solicita la certificación de madurez TIC de su centro y acepta las condiciones que se especifican en esta convocatoria.

Lekua / Lugar: \_\_\_\_\_

Data / Fecha: \_\_\_\_\_

Ikastetxeko zuzendariaren sinadura / Firma del director/a del centro